

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Garapen Jasangarriaren Lankidetzan Hezkuntza arloan” eta “Neurohezkuntza”, datozen udako ikastaroetako gaiak

Saio hauek irailaren 24tik 27ra izanen dira, Iruñeko Kondestable Jauregian eta UHUn

Osteguna, 2018.eko irailak 20

“Garapen Jasangarriaren Lankidetzan Hezkuntza arloan” eta “Neurohezkuntza: zurruntasuna edo plastikotasuna?” izanen dira, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko UHUK datorren asterako antolatutako udako ikastaroetan eskainiko diren gaiak. Lehenengo saioa, irailaren 24tik 26ra egingen da Iruñeko Kondestable Jauregian eta bigarrena, 25etik 27ra, Iruñeko UHUn.

-[“Garapen Jasangarriaren Lankidetzan Hezkuntza arloan”](#): Ikastaro hau hezkuntza munduan dihardutenei zuzenduta dago. Bai eta gai honetan interesa daukaten guztiei, ikastaroaren alorrean adituak direnei, eta baita Nafarroako Gobernuak, Iruñeko eta Tuterako udaletako, Nafarroako NGDOko (Non-Governmental Development Organisation) eta beste lurralde batzuetako Hezkuntzako lankidetzako teknikariei ere.

2015etik 2030era Espainiako lankidetzan parte hartzen duten administrazioek, unibertsitateek, enpresek eta NGDOek, Nazio Batuen Erakundearen garapen jasangarria lortzeko, aurre egin beharreko erronka eta aldaketak identifikatzea eta ulertzea dira ikastaro honen helburuak.

-[“Neurohezkuntza: zurruntasuna edo plastikotasuna?”](#): Saio honek, hezkuntza estrategiak eraberritzen eta berrikasten, zein ikasteko erak edo jokabideak aldatzen lagundu nahi du, ikaskuntzak eraginkorragoak bihurtuz. Beraz, ikastaro hau hezkuntzako munduan lan egiten duten edo horretarako prestatzen ari diren profesionaleri zuzenduta dago, baita hezitzaile direnei ere.

Kurtso hauen inguruko informazio gehiago izateko eta matrikula egiteko sartu ondorengo web orrialde honetan: udakoikastaroak.navarra.es/.